

FEDEA TA EUSKERA

Airea: Mariya nora zuaz

Euskal-erriko lengo
oitura dontsuak,
ziran guztiz eder ta
chit baliyosuak;
Fededunak bai ziran
guregurasuak,
zuzenak ziran ayen
munduko pausuak.

Jaunaren beldur pean
zan emen jendia,
gordetzen zuten ongi
Beraren legia;
erakutsiyaz garbi
aurrari Fedia,
pauso zuzenak eta
zerura bidia.

Goizetik egin pozez
Jaunari otoitza,
ori da euskaldunen
lenengo oroitza;
gero gogoratu, bai,
zer dan eriyotza,
oyekin soseguz da
gizonen biyotza.

Seaskan dagonian
aur zoragarriya
edo badauka amak
titiyan jarriya
kantatu belarrira
kantacho eztiya,
esanaz lendabizi
Birjiña Mariya.

Maisuak eskoletan,
apaizak elizan,
erakutsi gaztetan
zer bear dan izan;
Done Tomás Aquino
jakintsuben gisan
ondorenguak gero
gaizki ez gabiltzan.

Erljiyo maitatzez
aspertzen ezgera,
berak digu pozkida
sartzen biyotzera;
eraman zagun beti
oitura au aurrera
deituaz:— *BIZI BITEZ*
FEDEA TA EUSKERA

JOSÉ ARTOLA.